

MALETA HUTSA

Egunero etxetik abiatzerakoan
ezinbestean maleta egin behar.
Batzuetan lekurik ez,
besteetan sobera.
Gogaldiaren menpeko bagaia.

Orain, aldiz, hemen nauzu,
maleta hutsa eskuan.
Hasi behar dudan honetan
mamuak kanpoan utzita.

Bidaiari onenak arin doaz bidean,
zamek ez dute ibiltzen laguntzen.
Bizipenak bizipen bagaia betetzen
ezer galtzerik ez duenaren pozaz.

MALETA VACÍA

Cada día al salir de casa he de hacer obligatoriamente la maleta.
Unas veces me falta espacio y otras me sobra. El equipaje va según el estado de ánimo.
Ahora, sin embargo, aquí me tienes con la maleta vacía en la mano tras expulsar mis
fantasmas para esta nueva aventura.
Los buenos viajeros van ligeros, las cargas no ayudan a caminar. Vivencia tras vivencia van
llenando el equipaje con la alegría de quien no tiene nada que perder.

DISTANTZIA

Zer den zeru goitik begiratzea
itxurak desitxuratuz,
etxe ondoko dorre erraldoi hura
nimiñotuz.

Zure begi ninien tamainako
hainbat laku, izkutuak,
itxaso txiki horietan itotzea
ezinezkoa.

Esku azpian hartu dezaket
gure herria,
hatz mamiekin
fereka egin.

Lasai, estaltzen zaituzten hodeiak
ez dira mugagabeak.

Orban grisak desagertzera doaz
berehala.

Esku azpian hartu dezaket
gure herria,
hatz mamiekin
balakatu, fereka egin.

Musu bat eta itzuli arte,
airean noa.

DISTANCIA

Mirar desde el cielo desfigurando las formas, empequeñeciendo aquella torre gigante de al lado de casa. Lagos escondidos del tamaño de tus pupilas, mares pequeños en los que sería imposible ahogarse.

Puedo coger nuestro pueblo con la palma de la mano, acariciarlo con la yema de los dedos. Tranquil@, las nubes que os cubren no son infinitas, las manchas grises están a punto de desaparecer.

Puedo coger nuestro pueblo con la palma de la mano, acariciarlo y tranquilizarlo con la yema de los dedos.

Un beso
y hasta la vuelta, me voy en el aire.

ENARA GALDUAK

Oi enarak, bidaia luze etengabean,
trenbiderik gabeko bagoi galduak
atseden bila haize bidean.
Elipse ikusezinetan
murgiltzen dira
joan etorrian.
Ez dira lehengora itzultzen,
memoria ez dute lagun eta galduz doaz laino artean.

Beste urte batez arrotzak elkarri saihestean.
Ez al gara iazkoak? Ezagutzen al dugu?
Onartu dezagun,
jada ez gara berberak.
Ez gara lehengora itzultzen,
memoria ez dugu lagun eta galduz goaz laino artean.

GOLONDRINAS PERDIDAS

Golondrinas, en permanente largo viaje,
vagones perdidos sin raíl
buscando descanso
en el camino de viento.
Van y vienen en elipses invisibles.
Nunca vuelven al mismo lugar,
la memoria no les acompaña y van perdiéndose entre la niebla.
Otro año más
somos extraños al evitarnos.
¿Acaso no somos los mismos?
¿Nos conocemos?
Aceptémoslo,
ya no somos los mismos.
No volvemos al mismo lugar,
la memoria no nos acompaña
y vamos perdiéndonos entre la niebla.

EZ AL DAKIZU

Aspaldi honetan ez du asmatzen
nire kriseiluko jenioak;
oporrak hartu ditu, beste barik, nitaz ahaztu da.
Beharbada oker ere ez zenbiltzan
etsia joaten nintzaizunean
kontsolamendu bila
hitz horiekin erantzunez:

“Ez al dakizu oraindik maitea
gurariak lapurtzen direla
patuaren altzotik,
datorren horretatik,
bila joatetik.
Dagoen oparirik ederrena
ekinaren bidez lortzen dena
helburuak maitatuz,
bideak jorratuz,
indar eginez.”

Zein haundi bihurtzen diren egiak,
oharkabeko lipar txikiak.
Horma iluna aurrean,
“klak” egin eta hodeiertz...
Norabide aldaketa txikia,
jada, tximeletak ez dira euliak,
lto zaituen urak
eztarri idorra umeltzen du.

Nahia, izatearen lehen urratsa
azaldu zuten eskola egunean
piper egin nuela aitortzen dizut.
Mila esker, beraz,
gaia gainditzeko laguntzestatik.

¿A CASO NO SABES?

Últimamente el genio de mi lámpara no anda fino.
Ha cogido vacaciones, sin más, se ha olvidado de mí.
Quizás no estabas equivocada cuando acudía a ti resignado en busca de consuelo y respondías con esas palabras:
“¿A caso no sabes aún, cariño, que los deseos se roban del regazo del destino, de lo que está por venir, que hay que ir a buscarlos?
El regalo más bello es el que se consigue intentándolo, amando los objetivos, trabajando los caminos con tesón.”
Qué grandes se hacen las verdades, pequeños momentos que pasan desapercibidos.
Ante un muro oscuro haces “click” y aparece el arco-iris.
Un pequeño cambio de dirección y las mariposas ya no son mosquitos.
El agua que nos ahogaba humedece ahora la garganta seca.
Te confieso que hice pira el día en que explicaron que el primer paso para ser era querer.
Y por ello, gracias por ayudarme a superar la asignatura.

ALDIRO

Iraganak zulorik izango balu
ispilua luke atea
non iragana eta oraina
elkarri agurtu eta solastu ahal izan.
Isladak. begiradak etengabe jokoan,
gomuten puzzle handi bat
non ohial zatiak josiz gaur naizen soineko hau
osatzen den aldiro, oraina eraikiz.
Orratzak eskumarantz doazen arren
leku berera bueltatzen dira.
Oroitzapen garauez osaturiko hondartzak
gure jolasleku
loreak, xingolak, hitzak
marrazteko harean,
memoriaren hondarrekin
oraina eraikiz aldiro-aldiro.

A CADA RATO

Si el pasado tuviese agujeros
tendría como puerta un espejo
en el que pasado y presente
podrían saludarse y conversar.
Reflejos, miradas jugando constantemente,
un gran puzzle de recuerdos
cosidos una y otra vez como pedazos de tela
van componiendo este vestido que hoy soy.
Aunque las agujas giren hacia la derecha
siempre vuelven al mismo lugar.
Playas compuestas de granos de recuerdos
son nuestro lugar de recreo
para dibujar en la arena flores, cintas, palabras,
construyendo continuamente el presente
con restos de memoria.

IZKINA IZOZTUAK

Lehenengo kale argiak itzalita, neonezkoek diraute euren azkenak ematen
Hiriez ez dute lorik egiten, begi bat zabaldua atsedena hartu baizik.
Asfaltuzko zainetatik badabil lehenbiziko autoa. Odol metalikoa.
Lozorrotutako kaleak hasi dira euren sabel dantzan apurka apurka.

Jendea irensteko kapazak diren eremu laberintikoaren izkina izoztuak,
bide gorabeheratsuen oroigarri, bizidun afitxen babesleku.
Izkina izoztuak.

Autoen zaraten akorde imperfektuek osatutako sinfonia, disonantziak betea.
Oinezkoek ez dute inor agurtzen etengabeko kontrako norabidean.
Ibilera kaotikoen hotsak etxe orratzen hormetatatik errepikan
behin eta berriz gogorarazten leku honen izen onomatopeikoa

ESQUINAS HELADAS

Se han apagado las primeras farolas mientras las luces de neón permanecen en su último suspiro. Las ciudades no duermen, sólo descansan con un ojo cerrado.
Por las venas de asfalto ya transita el primer coche. Sangre metálica.
Las calles adormecidas comienzan su danza del vientre poco a poco.
Esquinas heladas de superficies laberínticas capaces de engullir a personas, refugio de carteles vivientes recordando vidas azarosas.
Esquinas heladas.
Una sinfonía llena de disonancias compuesta por acordes imperfectos provocados por el ruido de los coches. Los peatones no saludan a nadie en constante dirección contraria.
El ruido del caminar caótico retumba por las paredes de los rascacielos una y otra vez haciendo recordar el nombre onomatopéyico de este lugar.

INOR BAGINA...

Zatoz, iltzatu grina...
oharkabe doa arratsa
Oi laztan, ez gara inor
beldur gabe oka ametsa.

Inor bagina, inor bagina
Waits-en kanta lakar barruan.
Zatoz, itzali mina... biluzian.

Heriok ez digu ezer eskatuko
orainaren aldarea eskainita,
lanbroak ez gaitu kulunkatuko
xuxurlatuko.

Inor, inor bagina
ez genuke zertan suizidatu.

Heldu, uxa samina.
Ninien isla arroken dirdirak.

Inor, inor bagina
Dylanen kantu baten erdian. inor, inor bagina eternal ginake.

SI FUÉRAMOS ALGUIEN...

Acércate, clava tu ansia...
a tarde se extingue imperceptible
Amor, no somos nadie
vomita tu sueño sin temor
Si fuéramos alguien, si fuéramos alguien
en una áspera canción de Waits.
Ven, apaga tu dolor... desnuda.
La muerte no nos exigirá nada
si le ofrendamos el altar del presente,
la bruma no nos mecerá
no nos susurrará.
Alguien, si fuéramos alguien
no seríamos suicidas.
Cógete a mí, aleja de ti la amargura.
Reflejos de rocas en las pupilas.
Alguien, si fuéramos alguien
en mitad de una canción de Dylan.
Alguien, si fuéramos alguien
seríamos eternos.

LAGUN BI

Lagun bi ziran
larruzko pilotari ostikoak ematen
herriko kaleetan
askari osteko
jolasaldian
ume zorientzuek
jolasten duten modu berean.
Pentsatu barik
patuak gorderik zien horretan.

Haziz joan ziren gero,
elkarrengandik aldentzen;
sodaduzkara deituak
denbora baten buruan,
eta gerra hasita, aurrez aurre
lubaki banatan ziren
arerio bihurtuta
elkarri tiro egiten.
Bitartean, euren sendiak
babesleku bereberetan
abioiak ekiditzen.

Eta larruzko pilota biraka...

DOS AMIGOS

Eran dos amigos dando patadas a una pelota de cuero en el recreo tras la comida, tal y como juegan los niños felices, sin pensar en lo que el destino les depararía. Crecieron, se alejaron el uno del otro y un día fueron llamados al servicio militar. Transcurrido un tiempo estallaba la guerra y se encontraban en trincheras opuestas, disparándose entre sí, mientras sus familias esquivaban aviones en el mismo refugio.
Y la pelota de cuero giraba...

EGUN EDER HONETAN

Ume baten irria
ondotik pasatzean
amaren besoen
besarkada epelean,
labeari darion
ogiaren usaina,
zuhaitz baten itzala
egun eder honetan.

Gaur dirudi bizitzak
baduela atsedeen.
Benetako plazerak,
indarra hartu dezadan.
Kaosari aurre egiteko
hala beharko izan.
Arnasa hartu dezaket
egun eder honetan.

Itotzen saiatuko diren arren
kemen handiz eutsiko diogu.

EN ESTE DÍA TAN HERMOSO

Pasar al lado de la sonrisa de un niño al cálido abrazo de su madre, el olor a pan que emana el horno, la sombra de un árbol en este día tan hermoso.
Hoy parece que la vida tiene descanso. Placeres verdaderos para recuperar fuerzas. Así habrá de ser para hacer frente a este caos. En este día tan hermoso puedo respirar. Aunque sigan intentando ahogarnos, resistiremos con tesón.

HOMBRE LOBO

Ze eroso zauden gau ilunaren babesean,
hamaika aldiz ilargia edan ostean,
bazter guztietatik zure “cat woman” bilatzen.
Egun argitan ezdeusa bilakatu zara.

Non zaude “hombre lobo”?
Gizon gizajoa!

HOMBRE LOBO

Qué cómodo estás al refugio de la noche oscura, tras haberte bebido la luna mil veces,
buscando a tu “Cat woman” por todos los rincones. Te has vuelto insignificante con la
luz del día.
¿Dónde estás hombre lobo?
¡Pobre hombre!

ASTEA

Astelehena da
elaiak pausatzen diran lekuetan
eta martitzena itsas ertzeko olatuen gainean.
Eguaztena begi argietan.

Asteak naroa.

Eguena da
lurra estaltzen daberen zugatz orrietan.
Barikua da
kilkerrek kantetan daberen melodian.
Zapatua, barritz, haizean.

Gaur domeka da behien musturretan
belarra jan bitartean marrazten daberean zirkuluetan,
prisa be barik.

LA SEMANA

Es lunes allá donde se posan las golondrinas
y martes sobre las olas en la orilla del mar.
Miércoles en los ojos claros.
La semana me lleva.
Es jueves en las hojas de los árboles que cubren el suelo.
Es viernes en la melodía que cantan los grillos.
Sábado, sin embargo, en el viento.
Hoy es domingo en el morro de las vacas,
en los círculos que trazan mientras comen hierba.
Sin ninguna prisa.